

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN FINANTZAZIOAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko apirilaren 10ean Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Etxez etxeke Laguntza Zerbitzua (ELZ) izaera sozialeko zerbitzu publikoa da haien ingurune naturalean bizitzen jarraitzeko zailtasunak dituzten pertsonen laguntzeko helburua duena. 2016an 2.149 pertsona artatu zituen zerbitzuak Donostian.

Tradizionalki, familiaren barruan geratu izan da pertsonen zainketaren ardura, bereziki emakumezkoen eskuetan, generoak eragindako ezberdintasunak oraindik gehiago areagotzea ekarri duela. Gure politiken ardatzean pertsona jartzen dugunez, zainketaren garrantzia modu berezian nabarmendu behar dugu, baina pentsatzen dugu zainketa hori, nagusiki, erantzukizun publikokoa izan behar dela, zainketaren esparru familiarra gutxietsi gabe.

Etxez etxeke Laguntza Zerbitzuak ekarpen garrantzitsuak egin dizkio gure babes sistemari, esaterako:

- Pertsonak bere inguru naturalean bizitzen jarraitu ahal izatea ahalbidetzen du.
- Pertsona zaintzaileei laguntza eskaintzen die.
- Sektore feminizatu batean enplegu duina sustatzen du, erregulatu gabeko zainketaren merkatuaren aurrean.
- Presioa jaisten laguntzen du administrazio publikoarentzat garestiagoak diren beste zerbitzu batzuen gainean; hala nola, egoitza zerbitzuen gainean, itxaron zerrenda arazo larria dutenak.
- Eta garrantzitsuena gizarte zerbitzuetarako sarbide bezala funtzionatzen du, beste arazo eta problematika batzuk detektatzen laguntzen duelako.

2005ean Foru Aldundiak lankidetzeta hitzarmenak sinatu zituen lurraldeko udalekin ELZren eskuordetze eta kudeaketa mandatuak bideratzeko mendekotasun egoeran zeuden pertsonen zerbitzua eskaintzeko, Eusko Jaurlaritzaren 155/2001 dekretuak ezarritako eskumen banaketaren arabera (mendekoak aldundientzat, autonomoak udalmentzat).

Beraz, orain arte, zerbitzua udal araudien bidez antolatu eta arautu bada ere, Foru Aldundiak finantzaketaren zatirik handiena bermatu izan du, zehazki % 70. Ondorioz, esan genezake ELZ hainbat administrazioi parte hartzen duten gizarte baliabide garrantzitsu bat dela.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

inguruan eta haren erantzuna izan zen Udal Gobernuak apustua egiten duela adineko pertsonak etxeetan mantentzearen alde eta, hortaz, zerbitzua bere horretan mantenduko duela.

Martxoan, ordea, Foru Aldundian egindako bilera batean, foru gobernuak aipatu du apiriletik aurrera udalekin dauden hitzarmenak eteteko arriskua dagoela eta honen aurrean Udal Gobernuak hainbat konpromiso hartu behar dituela uste dugu.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, ELZ pertsonaren zaintzarako ezinbesteko zerbitzua dela kontuan izanda, zerbitzua hobetzeko eta zabaltzeko neurriak aztertu eta ezartzeko konpromisoa; halaber, langileei lan baldintza duinak bermatzekoa.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Foru Aldundiak Udalarekin duen hitzarmena bertan behera gelditzen bada, zerbitzuaren finantziazioa bere horretan mantentzeko, murrizketarik egin gabe.

Donostian, 2017ko ekainaren 22an



Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia